


EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

2024rako aurreikuspenak hobetu dira eta 2025erako baikortasunari eutsi zaio

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europako Batzordeak uste du Batasuneko ekonomiak %1,0 egingo duela gora 2024an, hau da, hamarren bat baino ez da hobetu aurreko hiruhilekoko aurreikuspenarekin alderatuta, aurtengo lehen hiruhilekoan aurreikusitakoa baino hazkunde handiago baten ondorioz. Hazkunde tasa oraindik apala bada ere, 2023ko erregistro txikiarekiko joera aldaketa ekarriko du, eta espero da 2025ean egoera ekonomikoaren hobekuntzak bizkortzen jarraitzea eta Batzordearen ustez ekoizpen potentzialaren mailarekiko dagoen aldea estutzea.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Europar Batasuna	0,4	1,0	1,6	0,1	-0,1
Eurogunea	0,4	0,8	1,4	0,0	-0,1
Alemania	-0,3	0,1	1,0	-0,2	-0,2
Belgika	1,4	1,3	1,4	-0,1	-0,1
Espania	2,5	2,1	1,9	0,4	-0,1
Frantzia	0,7	0,7	1,3	-0,2	0,0
Italia	0,9	0,9	1,1	0,2	-0,1
Herbehereak	0,1	0,8	1,5	0,4	-0,1
Portugal	2,3	1,7	1,9	0,5	0,3
Irlanda	-3,2	1,2	3,6	0,0	0,4
Grezia	2,0	2,2	2,3	-0,1	0,0
Austria	-0,8	0,3	1,6	-0,3	0,2


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Hala, jardueraren dinamismoa handitzea aurreikusten da kontsumo pribatuaren hobekuntzari esker, 2024an %1,3 eta 2025ean %1,7 igoko baita, enplegu sorrera handiak eta soldaten nolabaiteko hazkundeak bultzatuta, 2023an prezioen maila handiagoak nabarmen higatuta geratu ondoren, nahiz eta inflazioa gero eta txikiagoa izan. 2023an prezio energetikoak moteldu ondoren, inflazioak jaisten jarraituko du, 2025ean %2ko helburura hurbildu arte, eta zerbitzuen prezioei eustea izango da erronka handiena.

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Europar Batasuna	6,4	2,7	2,2	-0,3	-0,3
Eurogunea	5,4	2,5	2,1	-0,2	-0,1
Alemania	6,0	2,4	2,0	-0,4	-0,4
Belgika	2,3	4,0	2,3	-0,5	0,0
Espainia	3,4	3,1	2,3	-0,1	0,2
Frantzia	5,7	2,5	2,0	-0,3	0,0
Italia	5,9	1,6	1,9	-0,4	-0,4
Herbehereak	4,1	2,5	2,0	-0,1	0,0
Portugal	5,3	2,3	1,9	0,0	0,0
Irlanda	5,2	1,9	1,8	-0,3	-0,1
Grezia	4,2	2,8	2,1	0,1	0,1
Austria	7,7	3,6	2,8	-0,4	-0,2

Iturria: Europar Batzardea eta Eurostat.